

Joxe Azurmendi: krisian bizitzeko pentsamendua

HARITZ AZURMENDI ARRUE

Saioaren planteamendua

Sarrera

Kokapen historiko-biografikoa

Joxeren obrara hurbiltzeko gako batzuk

Galderak eta iruzkinak

Online baliabide batzuk

Joxe Azurmendiren ibilbidea

1941, Zegaman (Gipuzkoan) jaio

1951-1965, Arantzazuko frantziskotarrekin ikasketak eta apaiztu

1965-1976, atzerrian.

80, 90 eta 00ko hamarkadak: Donostia eta Kolonia.

2010, gaixoaldia eta erretiroa



56ko belaunaldia, gerraondotik trantsiziora

36ko Gerra ezagutu ez dutenen lehen belaunaldia

Euskal munduaren aldeko hautu fundamentala

Pentsamendu propioa sortu

Joxe Azurmendiren obrarako zenbait gako

Kontsiderazio orokor batzuk obrara gerturatzeko

Zer da gizakia?

Estatu Modernoa eta demokrazia liberala

Etika: erlatibismo erlatibo bat.

Kontsiderazio orokorrak

Modernitatearen berrirakurketa kritiko bat, esparru filosofiko guztietan

Eraiki baino, deseraiki - ondorio biribilik ez, obra fragmentatua

Filosofia orokorretatik auzi konkretuetara.

Saiakeragilea: idazkera bizi, batzuetan polemiko, baina eruditua

Gizakia abere hutsa da

Gizakia abere bat da

- EZ gorputza vs arima edo arrazoimena; natura-izpiritua/kultura continuum
- Animalia, natura, baina ez determinatua

Animalia hiztun ~~eta~~ komunitarioa da

- Animaliatasunetik hizkuntza, hizkuntzatik taldekoitasuna
- Auzia: hizkuntza-komunitatea-politika


Gizaberea kooperatiboa da

- Taldekoi izatea \neq derrigor taldearen aldeko
- Baina giza naturan badago kooperaziorako giltza

Gizaberea, konstituzio irekidun animalia



abere hutsa



“Aristoteles-en esana, gizakia abere logiko eta politikoa omen dela, errepikatu ohi da; ia beti ahaztuz, esaldi horretan hitz biok sinonimotsuak zirela harentzat. Logosak komunitateko abereak egiten gaitu, taldekoak soil gabe (ardiak edo inurriak legez). Gure ahoko hitz bakoitzean unibertso baten –Logos – oihartzuna durundiatzen da. Mintzaten dugun hitz bakoitzean hildakoak entzuten dira –arbasoak. Garaikide biziak mintzo dira, familia, non ere baitugu hitz egiten ikasi; lagunak, zeintzuekin ere komunikatu ohi baikara, hitz horiekin elkar ulertuz eta mundua geureganatuz. Lagunek ulertuak izateak bihurtzen ditu nire hitz-hotsok hizkuntza.”

AZURMENDI, J. (2007) Humboldt. Hizkuntza eta pentsamendua. UEU. 321. or


Estatu liberal demokratikoa

Demokraziaren bi zentzuak

- Balio eta ideal multzo bat, praktika politiko batzuk (kultura bat)
- Egitura politiko-legal jakinak, Estatu konkretuak (titulu bat)

Demokrazia Estatuaren autojustifikaziorako tresna gisa

- Gu zibiko demokratikoak, eurak etniko baztertzaileak (M. Billig - Nazionalismo banala)
- “Konstituziotik kanpo ez dago demokraziarik” logika. Estatuaren demokraziaren zaindari. Estatuaren aurka egitea, demokraziaren aurka egitea da.
- Demokratik vs biolentoak



Demokratik eta biolentoak
(1997)

Azurmendiren jarrera

- Logika horien kritika eta arriskuaren ohartarazle (Katalunia?)
- Estatu ahalik eta txikiena, gizarte ahalik eta antolatuena
- Demokrazia, praktiken bitartez etengabe elikatzen den kultura

Lotura: Estatu-fobia (J. Goikoetxea), anarkismoa...

“Demokrazia izan liteke herri batek bere historian, poliki-poliki, lan eta borroka artean, irabazia eta landua eta beti landuz jarraitzen duena. Kultura bat. Edo izan liteke dekretu batez goitik behera ezarria, Alemanian izan zen bezala, tropa aliatuek militarki garaitu, okupatu eta herri gatibuari inposatu ziotena.

Begientzat axala gainean aldatu bada, barruago kultura ez. Baina pentsa dezagun berriro: demokrazia etor daiteke puntu batera, non berari eusten dion kultura —axaleko formak utzita— funtsean faxismoari eusten zion kultura berbera den. Axalean askatasun sistema bat dirudiena, dominazio sistema bat izan daiteke barnean (zirkunstantziek hala eskatuz gero formak ere komeni bezain totalitarioak hartzeko eskrupulorik gabe).”

AZURMENDI, J. (1998) Oraingo gazte eroak. Gogoetak ETaren sorrera inguruko kultur giroaz eta gaurkoaz, Luma liburuak. 9. or

Planteamendu etiko garaikide baten bila

Modernitateko **absolutuak erori direnean**, nola ebatzi ekintza baten (in)justutasuna. Nola oinarritu **arrazoiketa publiko bat** horri buruz?

“Bortxa oro...” gisako printzipio absolutuak

- Deklaratu erraz, arrazoitu nekez. Nola interpretatu historia?
- Edo ermitaua edo hipokrita

Sen moral jatorra?

- Oinarri erlatiboa, osatu beharrekoa (+ ondorioak...)
- Azpimarra: irizpide egokitzat, baina ez bakartzat



**Euskal
Herria
Krisian
(1999)**

Erlatibismo erlatibo bat

Ziurtasun absolutuen tentazioaren eta dogmatismoaren kontra aldarrikatzen da erlatibismoa.

Dena da erlatibo, baina dena ez da berdin. Nihilismorik ez.

- Diskurtsoaren etika (Habermas), baina kontsentsuaren ideiaz mesfidati.
- Arrazionaltasuna/moraltasuna eztabaidakide guztiei aitortu. Argudiaketa horiek (sakoneko logikak) eztabaidatu.
- Auzi konkretuak eztabaidatu, ez printzipio absolutuak.

Absolutuak, oinarrizko balioak, kultura batean eraiki eta eraldatu egiten dira historikoki (tradizioa+eraberritzea).

- Oinarriztatze erlatiboa, baliagarritasun ia absolutua

Errazena erlatibismo unibertsal honengatik heiahoratzea da eta eskandalizatzea –hala ikusten dugu–; eta, gure neomoderno batzuek gustu dutenez, egungo miseriaren aldean behialako Ilustrazio razional eta burgoi paregabea goraiatzea (berriz ere: “hura zan gizona, hura!”). [...] Beti ere... Ilustrazioko Arrazoimenaren gure nostalgikoek argitzen ez digutena da, Ilustrazio horrek gaur zer izan beharko lukeen; edo, Ilustrazioak berak –kritikak– Arrazoimen oinarritzatzaile ahaltso hura aspaldi birrindu eta gero, zer izan ahalko litzatekeen gaur arrazoimen ilustratu bat, arrazoimen erlatibista hauxe ez bada.

Izan ere, nola bizi XVIII. Mendeko arrazoimena XXI. mendean, XVIII. mende hura ukatuz ez bada? Arrazoimen zaharra, absolutua eta metafisikoa, kreatzailea eta oinarritzatzailea Jainkoaren ordezkoa izatetik, tresna (instrumental) hutsa izatera etorria dago, eta –nostalgikoak gorabehera– horrek ez dauka bueltarik.

AZURMENDI, J. (1999) Euskal Herria krisian. Elkarlanean. 37. or.

Bukatzeko...

“Konturatuko dira Azurmendi hausnartzaile razionalista umila baizik ez dela. Eta **pentsatzaile ona dela, baina batez ere ulertzaile fina**. Entzuten jakitea mintzatzen jakitea baino inportanteagoa da. Antzinako indiar filosofoek ondo zekiten hori, kasta horretakoa da Azurmendi. Naturak berak ere ondo daki hori: bina belarri eman dizkigu denei mihi bana eskaini orduko.” (J. Sarrionandia)

"Filosofoa guretzat ez da gauzak pentsatu dizkiguna, pentsarazten dizkiguna baizik". (J. Azurmendi)

Zenbait erreferentzia erabilgarri

[Wikipediako](#) orria

[Jakin](#)en digitalizazioa

Joxe Azurmendi [Kongresua](#)



ESKERRIK ASKO!

haritz.azurmendi@jakin.eus

@hazarrue